

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1626

*332/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Fernando Encinar Martín jauna Araba Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatzen duena.*

Aztertu dugu Araba Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen 2016ko urtarrilaren 25eko 65/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko otsailaren 10eko EHAA (27. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Fernando Encinar Martín jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, zuzendaritza nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Fernando Encinar Martín jauna izendatzea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.